

Mikroskopiaren argitan

Nikon Small World 2019

"Mikroskopiari esker, izaki txikienetara eta gure mundua osatzen duten osagaietara hurbildu gaituzke, eta bestela oharkabean pasatzen diren bizitzako gauza txikiei beha diezaiekegu", dio Teresa Kugler graduatu berriak. "Mikroskopiaren bidez ikusten ditugun irudi ederrek inspiratu egiten gaituzte", eranstean du Teresa Zgoda mikroskopia-technikariak.

Inspirazio hori lagun, eta pazientzia, zehaztasuna eta eskarmentua oinarri, sortu zuten dortoka-enbrioi baten irudi hau. Mikroskopia estereoskopikoa eta fluoreszentsia erabili zituzten, eta dortoka-enbrioiaren tamaina (zentimetro pare bat) zailtasun bat izan zen, zati oso txiki bat gelditzen zelako plano fokalean. Horregatik, ehunka irudi josiz osatu zuten azken irudi koloretsua.


Nikon Small World lehiaketaren 2019ko edizioko irabazlea izan da irudi hau. Lehiaketara aurkeztu diren irudietatik beste hainbat ere nabarmendu zituen epaimahaiak, eta haietako batzuk dituzue jarraian.

Dortoka-enbrioi fluoreszentea

Teresa Zgoda eta Teresa Kugler (AEB)



Koloreztatutako hiru *Stentor*
(ur gezatako protozoo zelulabakarrak)
Igor Siwanowicz (AEB)






Ur-arkakuso bat (*Daphnia magna*), umedun
Marek Miś (Polonia)




Erradiolario-eskeleto
beirakarak
Frank Reiser (AEB)






Hamahiru eguneko sagu-enbrioi bat gardendua, nerbioak (urdin argiz) eta endotelio-zelulak (adibidez, odol-hodiak; urdin ilunez) errazago ikusteko. Nathan Burns (AEB)

Ipomoea cairica landare igokariaren
zurtoinaren zeharkako ebakidura
Edgar Javier Rincón (Kolonbia)





Sagu-bularrean esnea sortzen duten albeoloak inguratzen dituzten zelula mioepitelialak
Caleb Dawson (Australia)

